
Mutrikuko Udala
Kartel irabazlea: Eva Eizagirre Urkiola
oainguan
BAI
Malen jaiak
2022
MUTRIKU
Uztailaren 21etik 25era

# AHOLKUAK

1.- Udalak eskubidea izango du antolatutako ekintzaren bat aldatzeko, programatik kentzeko edo bertan behera uzteko, ezinbesteko arrazoiak direla medio.

2.- Udaleko langileek edo agintaritzaren agenteek emandako instrukzioak betetzeko eskatzen dizugu. Ez itzazu garbiketa lanak oztopatu, ezta Udaleko zerbitzuen lanak ere; kontuan har ezazu hainbat pertsonak lanean dihardutela, gainontzekook jaiez goza dezagun.

3.- Jaietan ondo pasatzeko eta gozatzeko, elkar errespetatu eta elkar zaindu. Elkar mindu gabe. Denon esku dago denon gustuko jaiak prestatzea! Horretaz gain, herriaren zaintza ere bermatu ahal izateko, errespetatu natura eta kaleak.

4.- Gogorarazi nahi dugu debekatuta dagoela 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea.

5.- Alkoholarekiko jarrera arduratsua izan.

6.- Edaten baduzu, ez gidatu.

7.- Erabil ezazu garraio publikoa.

8.- Erabat debekatuta dago 16 urtetik beherakoek sokamuturretan parte hartzea.

9.- Komun publikoak erabil itzazu, kaleak garbi mantentzeko.

10.- Jende asko biltzen den lekuetan, lapurretak gertatu litezke, edo zerbait galdu. Beraz, kontu handiz ibili beharra dago. Zaindu zure gauzak. Ekidin balioko gauzak eramatea, poltsa ondo itxi eta ez utzi sakelekorik, karterarik, ... edonon.

11.- Mutrikuk ez du ez eraso matxistarik ezta arrazistarik onartzen. Salatu beldurrarazte, jazarpen eta indarkeria jokabideak.

12.- Zure adiskideek izan dezatela zure planen berri.

13.- Norbaiti zerbait gertatuz gero eskaini zure laguntza.

14.- Neurtu bolumena, gauez deskantsatu nahi dutenak errespetatu.

# alkatearen agurra



Joseba Palenzuela Arrieta

Azken urteak ez dira izan
gure garairik onenak
jaiak egiten ahaztu zaigula
hor daude uste dutenak
gure kaleak gure koadrillak
ekitaldi eta berbenak
saia gaitezen berreskuratzen
betiko gure Malenak

## ondo pasa Malenak! gora Mutriku!

**Elkarte eta eragile hauen elkarlanari eta konpromisoari esker egin dira Malenetako ekitaldiak:**

**Bizixo jai konpartsa · Erraldoi eta Buruhandien konpartsa**
**txistu taldea · Gure Ametsa dantza taldea**
**Mandazketa elkartea · Musika Banda · sokatira taldea**
**Hogar del Marinero elkartea · Danok Bat elkartea**
**Arte Eskola**

# uztailak 21

## eguena



# MALEN BEZPERA
# GAZTE EGUNA

**12:30** : **Topaketa eta kamiseten banaketa Gaztetxean**
**Ondoren, triki poteoa herrian zehar**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

**14:30** : **Argazkia txosnagunean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

**15:00** : **Herri bazkaria Merkatu plazan**
**Ondoren, bingo musikatua**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

**18:00** : **Malen jaien txupinazoa**

**18:00** : **Erraldoi eta buruhandien konpartsaren eta txistularien kalejira**

**18:00** : **Karro poteoa herrian zehar**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

**19:30** : **Bezperak eta salbea Jasokundeko Andra Mariaren parrokian**

**20:00** : **Larrain dantza herrikoia Goiko plazan**
Gure Ametsa dantza taldearen eskutik

**20:00** : **Elkartasun kalejira Goiko plazatik txosnagunera**
Antolatzailea:Bizixo jai konpartsa

**23:00** : **Danborrada Mandazketa elkartearen eskutik (50. urteurrena)**
**Ondoren,  Oihan Vega Goiko plazan**

**00:00** : **Txupinazoa eta Bizixotxon igoera txosnagunean**
**Ondoren, Batukada Feminista**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

**01:00** : **Casus Beli eta DJ Koi4k Gaztetxean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa


uztailak 22
barikua

# MALEN EGUNA

**10:00** **Diana Musika Bandaren eskutik**

**11:00** **Meza Nagusia Jasokundeko Andra Mariaren parrokian**

**11:00 14:00** **Haur parkea Egañaneko frontoian**

**13:00** **Musika Bandaren kontzertua Goiko plazan**

**17:00 19:00** **Haur parkea Egañaneko frontoian**

**18:00** **Sokamuturra**

**19:30** **Herri Kirol erakusketa Sokatira taldearen eskutik Goiko plazan**
**Sokatira taldearen 50. urteurrena.**

**20:00** **Txalainak txosnagunean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

**20:00 00:00** **Gune Morea Beheko plazan**

**22:30** **Liher eta Skakeo txosnagunean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

**23:00** **Su artifizialak**
**Ondoren, Elegancia Mexicana mariatxiak Goiko plazan**


uztailak 23
zapatua

# MALEN TXIKI

**11:00 – 14:00** | **Haur parkea Egañaneko frontoian**

**12:30** | **Erraldoien eta buruhandien konpartsaren eta txistularien kalejira**

**13:00** | **Kantu poteoa Zubixatik hasita**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

**13:00** | **Pottokak eta zezen txikiak Goiko plazan**

**15:00** | **Elkartasun bazkaria txosnagunean**
**Ondoren, Maren bakarlariaren kontzertua**
Antolatzailea: Bizixo Jai Konpartsa

**17:00 – 19:00** | **Haur parkea Egañanerko frontoian**

**17:30** | **CHEF NATURE ikuskizuna Zabiel plazan**

**20:00** | **Umeen Danborrada**
Hogar del Marinero elkartearen eskutik

**22:00** | **Zesta puntako partidak eta Miruaitz frontoiaren 250. urteurrenaren ekitaldia**

**22:00** | **Go!azen karaokea Goiko plazan**

**22:30** | **DJ Txillardegi txosnagunean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa




Ailetz Barruetabeña Azkue

# uztailak 24

## domeka



# KUADRILA EGUNA

| | |
|---|---|
| 11:00<br>14:00 | **Haur Parkea Egañaneko frontoian** |
| 12:30 | **Futbito zezenekin Goiko plazan** |
| 14:00 | **Poteoa herriko txarangarekin**<br>Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa |
| 15:00 | **Koadrilen arteko bazkaria txosnagunean**<br>Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa |
| 17:00<br>19:00 | **Haur parkea Egañaneko frontoian** |
| 17:00 | **Poteoa herriko txarangarekin**<br>Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa |
| 18:00 | **Sokamuturra** |
| 18:00 | **Karaokea Gaztetxean**<br>Antolatzailea. Bizixo jai konpartsa |
| 20:00<br>21:00 | **Gozo Gozo erromeria txosnagunean**<br>Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa |
| 20:00<br>01:00 | **AiLaket! Elkartearen Botiltzarra gazteekin herrian zehar** |
| 22:30 | **ZETAK Goiko plazan** |
| 23:00<br>02:00 | **Alkoholaren prebentzioarako informazio gunea Beheko plazan**<br>Sasoia eta Eusko Jaurlaritza |
| 00:00<br>01:30 | **Gozo Gozo erromeria txosnagunean**<br>**Ondoren, Little Martin Selektah**<br>Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa |

# uztailak 25

## astelehena



# SANTIXO EGUNA

**10:00** **Margo lehiaketaren hasiera**
Arte Eskolaren eskutik

**13:00** **Okela eta Sagarmiña txakoliñ dastaketa Goiko plazan**

**18:00** **Margo lehiaketaren sari banaketa Zabiel kultur etxean**

**18:30** **TIO TERONEN SEMEAK Goiko plazan**

**19:30** **Bertso saioa txosnagunean**
**Saioa Alkaiza**
**Amaia Iturriotz**
**Ane Labaka**
**Amaia Agirre**
**Gai jartzailea: Maddi Ane Txoperena**
**Ondoren, Bizixotxon jaitsiera**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

# IKUSKI



UZTAILAK 21 - DANBORRADA BUKATUTAKOAN

## OIHAN VEGA

Diskofestaren 500 emanaldi baino gehiago egin ditu, Euskal Herriko DJ erreferente bihurtuz. ETBn eta GAZTEA irratian parte hartzeagatik ere ezaguna da.
Gaur egungo munduko musikarik onena bertako musikarekin konbinatuz, saio paregabeak, dibertigarriak eta energiaz beteak egiten ditu.



UZTAILAK 22 - SU ARTIFIZIALEN ONDOREN

## ELEGANCIA MEXICANA MARIATXIAK

Urtero bezala, talde mexikar bat izango dugu, aurten Elegancia Mexicana Mariatxi taldea. 10-11 lagunek osatzen dute, 8-9 musikarik zortzi ahotsekin eta dantza bikote batek. Mexikoko folklorearen dantzekin eta Veracruz, Chiapas, Nuevo León eta Jaliscoko jantziekin girotzen eta apaintzen dute ikuskizuna.

UZTAILAK 23 - 22:00

## GO!AZEN KARAOKEA

Goazen telesaileko Aitziber Errazkin (Enara), Ander Lacalle (Luken) eta Asier Burguete (Markel) herriz herri ibiltzen dira telesaileko abesti ezagunenak abesten eta dantzatzen.
Baina erne! Oraingoan zure laguntza beharko dute eta.
Animatu eta zatoz gurekin

# ZUNAK




**UZTAILAK 23 - 17:30**

## CHEF NATURE

"Chef Nature" antzezlana aire zabalean dagoen jatetxe bat da, bere ortua duena. Mahaikideak mugikorrak eta pantaila guztiak baztertu eta naturarekin bat egingo dute. Proposatutako menua magikoa, harrigarria, terapeutikoa eta oso dibertigarria izango da.
Menua prestatzeko Markeliñek bere sukaldean ohikoak diren osagaiak erabiliko ditu: erritmoa, keinuetan oinarritutako antzerkia eta hainbat materialekin lagundutako jokoa. Hori guztia gatz pixka batekin eta



**UZTAILAK 24 - 22:30**

## ZETAK

Pello Reparaz geldiezinak sortutako proiektu honek musika elektronikoa euskaraz egiten du. Vendetta taldearekin arrakasta handiko urteak bizi ostean, musikari nafarrak taldea utzi eta konbo berri bat sortzea erabaki zuen, erregistroan ere muturreko aldaketa egin eta musika elektronikoko proiektu hau sortuz. ZETAKek lantalde sendoa sortu du Gorka Pastor, Leire Colomo, Iban Larreburu (musikariak); Iratxe Reparaz, Joseba Razquin, Pau Vargas eta Artzai Iraurgirekin.



**UZTAILAK 25 - 18:30**

## TIO TERONEN SEMEAK FRESHCOOL ikuskizuna

Jatorri askotako dantzariak bildu dira taldea sortzeko, baina bi gauza dituzte komunean: dantzatzeko pasioa eta umore paregabea. Dantza eta musika estilo desberdinak joan eta etorriko dira, nahastu eta aldenduko dira; patroi zehatz bati jarraitu gabe eta ondo pasatzeko helburu bakarrarekin. Umorez betetako ikuskizun dantzatua, orain arte inoiz ikusi ez dena.

# AURREKONTUA

**Dirulaguntzak:** ........ **7.600 €**
(Bizixo jai konpartsa, Mandazketa elkartea, Erraldoi eta Buruhandien konpartsa, sokatira taldea)

**Programak:** ........ **1.300 €**

**Komunak:** ........ **1.200 €**

**Haur Parkea:** ........ **5.164,50 €**

**Zezen ikuskizunak:** ........ **5.915 €**
(Zezenak, albaitaria, hesiak, asegurua eta anbulantziak)

**Ikuskizun piroteknikoak:** ........ **6.556 €**
(suak, asegurua eta anbulantziak)

**Kontzertuak:** ........ **31.875 €**
(Oihan Vega, Elegancia Mexicana mariatxiak, Go!azen Karaokea, Zetak eta Tio Teronen semeak)

**Soinua eta argiztapena:** ........ **4.840 €**

**Haur ikuskizunak:** ........ **2.722,50 €**

**Sariak:** ........ **500 €**

**Okela eta txakolin dastaketa:** ........ **2.500 €**

**Aire libreko margo lehiaketa:** ........ **2.000 €**

**Oroigarriak:** ........ **100 €**

**Kontzertuetako afariak:** ........ **300 €**

**Sgae:** ........ **1.000 €**

**Argazkilaria:** ........ **850 €**

**Publizitatea:** ........ **400 €**

# Mutriku herria, Mutriku maitia, Mutriku guria



Mutriku herria,
Mutriku maitia,
Mutriku guria.

Kristo zulotik Arno bitarte,
daukagu Mutriku herria.
Gipuzkoako txoko txikia,
bainan bihotzez haundia
Umetatikan sortzen zaizkigu,
doinu ta abestien griña,
herri polit eta baketsu honetan,
betiko bizi bagiña.

Mutriku herria,
Mutriku maitia,
Mutriku guria

Umore onez jokatzen degu,
ia egun gehienian,
uxatzen degu gure aurretik,
ekaitza datorrenian,
ontziak kaian, Txurruka plazan,
kale baserri txuriak,
langile zintzo ta arrantzaliak,
hauxe da Mutriku herria.

Mutriku herria,
Mutriku maitia,
Mutriku guria

# KULTUR AGENDA

## UZTAILEAN

Kontzertua

### ANAIARTE ABESBATZA

**23:00**

**Goiko plazan**

**16**



Kontzertua

### KANTU BAT GARA

**22:30**

**Zabiel plazan**

**30**

JON MAIA

## ABUZTUAN

Kontzertua

### NEOMAK

**22:30**

**Goiko plazan**

**06**



Zinema

### AIRE LIBREKO ZINEA

**22:30**

**Zabiel plazan**

**03-10-17**



# MUTRIKUKO JAIETAN ERE

# ERASO MATXISTEI

# PLANTO!

Eraso matxisten aurrean, arretarako zerbitzuak:

| LARRIALDIAK | SATEVI<br>Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono | SFUS<br>Gizarte larrialdien koordinazioko foru zerbitzua |
|---|---|---|
| 112 | 900 840 111 | 943 22 44 11 |
| (24 ORDUTAN) | (24 ORDUTAN) | (24 ORDUTAN) |

| ERASO MATXISTEN ARRETARAKO AURREZ AURREKO ZERBITZUA | UDALTZAINGOA | ERTZAINTZA (EIBAR) |
|---|---|---|
| 679 162 507 | 679 162 500 | 943 53 17 00 |
| uztailak 23: 20.00-8.00<br>uztailak 24 20.00-8.00 | | (24 ORDUTAN) |

MUTRIKUKO GIZARTE ZERBITZUAK: 943 19 50 81

Mutrikuko Udala

ondo pasa Malenak!
gora Mutriku!